



Hizkuntza-politika
berri eraginkorra

HIZKUNTZA POLITIKA



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

IZENBURUA

Hizkuntza-politika berri eraginkorra
HIZKUNTZA-POLITIKA BERRIA 1.0

ARGITARALDIA

2009ko apirilaren 25eko
Batzar Nagusiak onartua.

ALE KOPURUA

Argitalpen digitala

ARGITARATZAILEA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua

INTERNET

www.kontseilua.org

AZALA

HORIXE diseinu tailerra

DISEINUA

HORIXE diseinu tailerra

1. SARRERA	4
2. HIZKUNTZA-POLITIKA EGOKI ETA ERAGINKORRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK	5
2.1. NORBANAKOEN MOTIBAZIOAZ NORMALIZAZIOAREN ZEREGINETAN.....	6
2.2. EZAGUTZAREN UNIBERTSALIZAZIOAZ.....	7
2.3. ESPAZIOEN EUSKALDUNTZEAZ.....	8
2.4. GIZARTE-ZIRKUITUAK.....	8
2.5. AURRERA EGITEKO ESKEMA EZAGUTZAREN GARAPENEAN OINARRITUZ....	9
3. CORPUS JURIDIKOA	11
3.1. EUSKARAREN ESTATUSA.....	11
3.2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ALDEKO ARKITEKTURA JURIDIKOA.....	11
A. Administrazio Publiko Orokorra euskalduntzeko legea.....	11
B. Osasun-sistema euskalduntzeko legea.....	12
C. Justizia zerbitzua euskalduntzeko legea	12
D. Hezkuntza euskalduntzeko eta Hezkuntzak euskalduntzeko legea.....	12
E. Lurralde antolamenduan hizkuntza-irizpideak ezartzeko legea	12
F. Alor sozioekonomikoa euskalduntzeko legea....	12
G. Herrizaingoa euskalduntzeko legea	12
H. Hedabideak euskalduntzeko legea	12
I. Eskaintza kulturala euskalduntzeko legea	13
J. Aisia eta kirola euskalduntzeko legea.....	12
K. Zerbitzu erlijiosoak euskalduntzeko legea.....	12
L. Arduradun politikoak euskalduntzeko legea ...	12
3.3.- EUSKARAREN LEGEA.....	12
4. BALIABIDE ADMINISTRATIBOAK	15
5. BALIABIDE EKONOMIKOAK	16
6. GIZA BALIABIDEAK	18
7. EBALUAZIO-SISTEMAK	20

1. SARRERA

Hizkuntza baten Normalizazio Prozesuak, kasu guztietan, dimentsio politikoa eta soziala du, eta euskararen kasuan ere horrela da. Espazio geografiko berbera, Euskal Herria, bi hizkuntzak betetzen dute baina, Hegoaldearen kasuan, espainola eta euskara dira lehian ari direnak eta frantsesa eta euskara, Iparraldean. Hala ere, haien arteko harremana diglosikoa da, hau da, euskarak ez ditu funtzio komunikatibo guztiak betetzen, bere erabilera mugatua da gizarte-alor askotan, ingurune geografiko batzuetan, eta ez dute herritar guztiak ezagutzen. Horren ondorioz, bai alor politikoa eta bai sozialean ere estrategia desberdinak abiatzen dira euskararen hedapen pertsonala eta soziala lortzeko, nola ezagutzari, hala erabilerari dagokienez.



Beraz, egoera diglosiko hori gaintitzea eta Euskal Herriko herritar guztiontzat beren eguneroko eta mota guztietako jardunean ohiko eta lehentasunezko hizkuntza euskara izatea da “*euskararen normalizazioaz*” Kontseiluak ulertzen duena, eta testu honetan eduki horrekin erabiliko da kasu guztietan. Bestalde, helburu horretara iristeko, bai alor sozialean eta bai politikoa jorratu beharreko bideari “*Normaliza-*

zio Prozesu” deitu diogu. Termino horien zehaztapena garrantzi handikoa iruditu zaigu, izan ere, gaur egun, eragile desberdinen interesen arabera eduki desberdinak hartzen ditu. Guretzat, beraz, argi gera bedi, euskararen normalizazioaren atzean aurkitzen den edukia eguneroko jardunean, normaltasun osoz eta lehentasunez euskara erabiltzen duen gizartea dago, interes pertsonalen arabera, herritar cleaniztunez osatua.

Normalizazio Prozesuaren dimentsio politikoari gagozkiolarik, hizkuntza-politika dugu elementurik azpimarragarriena. Izan ere, hizkuntza-politika egoki batek gidaturik eta herri ekimenaren bultzadaz baka-rrik lor liteke euskararen normalizazioaren helburua. Gaur egun, Euskal Herria eta ondorioz, hizkuntza-komunitatea Administrazio desberdinek zatikaturik egonda asko dira eta oso desberdinak aplikatzen diren hizkuntza-politikak eta horrek dudarik gabe, zaildu egiten du Normalizazio Prozesua. Hala ere, lan honetan euskararen normalizazioa eramango gaituen hizkuntza-politika egokia definitzen saiatuko gara, hizkuntza-komunitatea zatitzen duen edozein Administrazioan aplikatzeko modukoa baina, logikoa den bezala, hizkuntza-komunitate osoan aplikatu beharko litzatekeena.

Gure hizkuntza-politika proposamena gaur egungo errealtetatetik abiatuko da, posiblea eta pragmatikoa izango da, interes alderditarrik gabea, euskararen normalizazioaren beharrek sortua, osoa, ekarpen saihestezina euskara normalizatu nahi duenarentzat. Gure proposamenaren sortze motibazioetan konstatazio bat dago, gaur egun aplikatzen ari direnek euskararen normalizazioa lortuko ez dutelako konstatazioa, alegia. Urte hauetan guztietan, xeheki aztertu ditugu politika desberdinak, izan ere halaxe baitira. Aztertu ditugu sektorialki, osoki, Administrazio desberdinetan, herri mailan eta Administrazio Orokorretan, alor publikoan aplikatzen direnak eta pribatuan, aztertu ditugu arreta bereziz emaitzak eta orain, huts egiteko inolako kezkarik gabe esan dezakegu, politika horiek ez digutela euskararen normalizazioa epe onargarri batean ekarriko.

Beraz, Kontseiluaren aburuz, lema-kolpea emateko unea, beste modu batez lan egiteko unea, “euskaraz bai” esateko ordua iritsi da eta horretarako guztiz ezinbestekoa da hizkuntza-politika berri bat abian jarzea, eraginkorra, zehatza, epeduna izango dena, mugarri bat ezartzeko ordua iritsia da. Ekin diezaiogun bada!



2. HIZKUNTZA-POLITIKA EGOKI ETA ERAGINKORRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Definizioz euskararen normalizazioaren alde hartzen diren erabakien eta esleitzen diren baliabideen multzoak osatzen du hizkuntza-politika. Azpimarratzekoa da, hala ere, kasu guztietan presente dagoen politika dela, euskararen alde egiten denean eta egiten ez denean ere. Horrekin esan nahi dugu, euskararen aldeko neurriak ez hartzea ere hizkuntza-politika dela, baita gainerako politiketan hizkuntza-irizpideak ez hartzea ere. Beraz, ez dago jarrera neutrorik, kasu guzti-guztietan existitzen da hizkuntza-politika oso gutxi baitira pertsonen artean hizkuntza erabili gabe burutzen diren ekintzak.

Kapitulu honetan orain arte hizkuntza-politika egokia definitzeko erabili ditugun irizpide nagusiak kokatuko ditugu. Honako hauek dira irizpideak:

Toki-Administratziotik Administrazio Nagusirainokoa, izango da hizkuntza-politika kasu guztietan. Arestian esan dugun bezala, normalizazio-prozesuak hizkuntza-egoera irauli egin behar du eta gizarte osoari eragin behar dio eraginkorra izango bada. Beraz, Administrazio guztiak daude inplikaturik. Administrazioen artean eskuduntza bana-keta egiten dute gestioaren eraginkortasunaren ikuspuntutik, hori dela eta, Administrazio bakoitzak kudeatzen duen eskuduntza horietako bakoitza euskararen Normalizazio Prozesuaren zerbitzuan jarri behar du. Guztiz funtsezkoa da era koordinatuan lan egitea eta kasu guztietan prozesuaren beharrek administrazioaren autonomia bezalako kontzeptuen gainetik egon behar dute. Une bakoitzean eta leku bakoitzean dagokiena egin behar da, era planifikatuan eta koordinazio estuan, Normalizazio Prozesua ondo joan dadin. Normalizazio Prozesuak Zuzendaritza politikoa izan behar du, organigrama orokorreko gailurrean kokaturik gainerako Sailetan zuzen eta nabarmenki eragiteko modukoa. Zuzendaritza horrek iazera exekutiboa izango du eta bere barnean bi adar: alde batetik, teknikoak, prozesuaren bilakaera etengabe ebaluatzeko, nazioarteko esperientziak aztertu, egokitu eta, hala balegokio, indarrean jartzeko, aplikatzen diren estrategien eraginkortasuna neurtzeko e.a., eta, bestaldetik, soziala, euskararen normalizazioaren alde modu eta forma desberdinez ari diren, taldeen, enpresen eta norbanakoen ahotsa entzun, haien esperientziaz baliatu eta ezinbestekoa izango den ekimen soziala indartu eta erabiltzeko. Zuzendaritza politikoa, sozial eta tekniko batek gidatuko du, beraz, Normalizazio Prozesua. Esan gabe doa, Euskal Herrian lan egiten duten eta zerbitzua eskaintzen duten mota eta maila guztietako administrazioek, euskaraz lan egiteko, euskaraz funtzionatzeko betebeharra dutela.

Sektoreen eta Sailen artekoa izatea da hizkuntza-politika egokiaren beste ezaugarri bat. Euskararen normalizazioa zeharka landu beharrekoa da: ogasunean, osasunean, herrizaingoan, justizian, ekologian, merkataritzan, aisian, industrian, garraioan... Politika guztietatik egiten da hizkuntza-politika eta horrela lan eginez soilik normalizatuko dugu euskara. Administrazioek diruz laguntzen duten edozein proiektu edo jardun hizkuntza-politika izango dira baldin eta hizkuntza-irizpideak ezartzen badira. Politika guztietatik egiten da hizkuntza-politika eta horrela lan eginez soilik normalizatuko dugu euskara. Administrazioek diruz laguntzen duten edozein proiektu edo jardun hizkuntza-politika izango dira baldin eta hizkuntza-irizpideak ezartzen badira. Politika guztien bitartez egin daiteke hizkuntza-politika. Bestalde, hizkuntza-politikak orekatua izan behar du, hau da, Gizarte-ko sektore batean soilik eragiten badugu (gazteak, emakumeak, langileak...) prozesua desorekatu egiten da eta eraginkortasuna galtzen du. Adibidez, belaunaldi berriei begirako politika soilak nekez lortuko du normalizazioa, alor sozioekonomikoa ahazten duenak ere ez du lortuko, helduen funtsezko papera ahaztu eta zokoratzen duenak ez du helburua lortuko. Ezinbestean, Sektore eta Sail guztietan eragin behar da alor batean irabazten duguna ondokoan gal ez dezagun. Gizarte unitate konplexu osoa da eta horrelaxe diseinatu behar da politika.



Helburu eta epe zehatzak dituen da hizkuntza-politika egokia. Hizkuntza-politika zerbait baldin bada, politika planifikatua da, ezin da bestela kudeatu, egite hutsak ez gaitu helburura gerturatzen. Lehenengo eta behin, azken helburua definitu behar da, definizio argia, gardenia, denok ulertzeko modukoa behar dugu, ezinezko sozialik gabea. Helburu horretara iristeko eman beharreko pausoak, horiek eman ahal izateko epeak eta bitartekoak etab unitate zatiezina osatzen dute. Normalizazio-prozesuak diseinu teorikoa izan behar du gauden momentutik hasten dena eta helbururainoko bidea egiten duena. Gizartearen bilakaeraren arabera, berrikusi beharko dira helburuak eta epeak baina edozein kasutan zehatz-mehatz ezagutu behar dira.

Baliabidez ongi hornitua eta egoki kudeatua izan behar du hizkuntza-politikak. Garrantzi handikoa da politika definitzen duten bi elementuen artean oreka bilatzea, hau da, araua eta laguntzaren artean. Euskaldun bat kontratatzeak aukera genuenean erdalduna kontratatu eta gero hura euskalduntzen dirutza inbertitzea alferrikako diru-xahuketa da. Baliabideen bitartez, normalizazioak ezinbesteko dituen bideak azkartzeko eta proiektuak sortzeko aukera bilatu behar dugu, hau da, arauaren bitartez lortzeko aukerarik ez dugun hori lortzeko. Edozein politikatan ezar daitezke hizkuntza-irizpide argi eta garbiak dituzten diru-baliabideak; beraz, bide horretatik biderkatu egingo da inbertsioen eraginkortasuna.

Norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa da hizkuntza-politikarik egokiena. Une guztietan, norbanakoek zer motibazio duten zer oztopo aurkitzen duten aztertu behar da eta, era berean, espazioak euskalduntzeko unean ere, zer motibazio sozialekin egiten dugun topo eta zer oztopo aurkitzen dugun aztertu behar dugu. Ezagutza unibertsalizatzeko bidea jorratzen dugun neurri berean gizartearen espazioak irabazi behar dira erabilera areagotzeko. Autoelikatzen diren bi bide dira, ezagutzeak erabiltzeko aukera irekitzen du eta erabiltzeak ezagutzeko gogoia pizten du baina, era berean, zirkulua ez bada norabide horretan ari inbertitu egiten da joera Normalizazio Prozesuaren kaltetan. Norbanakoak motibazioz iristen dira ezagutzara eta horiek sorburu desberdina izan dezakete eta espazioak funtsean hizkuntza-politikaz euskalduntzen dira zailagoa baita motibazio kontzeptua talde bati egokitzea. **Erabilera sozial normalizatua** da kasu guztietan hizkuntza-politikaren helburua. Ez da inoiz ezagutza unibertsala izango bakarrik, ezagutza unibertsalak berez eta bakarrik ez baitu erabilera soziala bermatzen.

Instituzioekin eta gizarte-eragileekin egoki koordinatua behar da hizkuntza-politika. Konplizitatea da harremana hobekien definitzen

duena. Normalizazio Prozesuak dimentsio politikoa eta soziala du, dagoneko esan dugun bezala, eta biak egoki uztartzea ezinbestekoa da helburura iristeko. Bi dimentsioak estuki erlazionaturik daude, errealitate sozialek jardun politikoa baldintzatzen dute eta jardun politikoak gizartea eraldatu egiten du; ondorioz, herri-ekimenak eta ekimen politikoak batera ibili behar dute. Edozein kasutan garbi utzi behar dugu, Administrazioek bakarrik ezingo luketela euskararen normalizazioa bermatu eta herri-ekimenak ere, bestalde, ezinezko du bere jardun propioz helmugara iritsi. Euskararen normalizazioa bi indarren elkarlan estutik etorriko da kasu guztietan.

Ikuspegi osoa duena da hizkuntza-politika egokia. Sektore batean, alor batean, hartzen den erabakiak eragina du beste sektore edo alor batean, hartzen ez diren erabakiek ere eragina dutela esan behar dugu. Errealitate hori Normalizazio Prozesuaren alde erabili behar da ongi definituz trakzio-lana egingo duten erabaki estrategiko garrantzitsuenak zein diren. Horiek ongi kudeatuz prozesua azkartzeko aukerak handitu egiten dira dudarik gabe.

Euskal Herri osoan aplikatzeko moduko hizkuntza-politika behar dugu. Hizkuntza-komunitatea zatiturik ageri da une honetan, administrazio desberdinek zatiturik eta hizkuntza-politika desberdinek zatiturik. Beraz, behar beharrezkoa da komunitate osoari eragingo dion politika egitea. Hizkuntza-politikak izan behar dituen helburu orokorrek errealitate soziolinguistiko bakoitzaren arabera egokitzapena izan behar dute erritmoak eta estrategiak lekuan lekuko errealitatearekin ezkontzeko. Bestalde, **hizkuntza-politika burujabea** behar du Normalizazio Prozesuak, bertakoek bertan sortua, inolako kanpo esku-hartzerik gabea.

Azkenik, esango dugu, politika egokiaren ardatz garrantzitsuenetarikoa bat **hizkuntza-eskubideen bermea dela**. Egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren hitzunen hizkuntza-eskubideak etengabe urratzen dira egoeraren beraren ondorioz. Hizkuntza-politikak, beraz, eskubide horien betetzea izan behar du helburu eta lehentasun normalizaziora iritsi baino lehenagoko tarte-helburu gisa.

Honaino hizkuntza-politika egokiak eta eraginkorrak izan behar dituen ezaugarri nagusiei buruzkoa. Hala ere, hizkuntza baten normalizazioa hizkuntza-ohiturak aldatzeko norbanakoen eta kolektiboen borondateak mugitzea den neurrian oso komenigarria da hizkuntza batean irautera edota ikastera eramaten gaituzten arazoak zein diren kontuan hartzea. Aztertu behar dugu, halaber, hizkuntza-politikak nola eragin dezakeen borondate horietan, nola erraz ditzakeen bideak eta kontrako indarrak nola neutraliza ditzakeen.

2.1. NORBANAKOEN MOTIBAZIOAZ NORMALIZAZIOAREN ZEREGINETAN

Normalizazio Prozesua ordezkatze prozesua da funtsean. Lehenago hizkuntza bat erabiltzen genuen gure harremanetarako eta orain beste bat erabiliko dugu zeregin bererako. Ikusten denez, prozesu soziala da norbanakoei bakarka ezin dutelako burutu, gizartea bere osoan inplikatzen duelako eta ondorioz milaka pertsonaren borondateak, motibazioa eta gogoia batu behar direlako norabide berean. Kasu guztietan espero izatekoa da erresistentzia maila bat baina prozesua arrakastaz burutzeko oztupoak gainditu beharko dira epe onargarri batean, denbora faktoreak hizkuntza gutxituaren kontra eragiten baitu.

Norbanakoen motibazioa da gurea bezalako prozesu batean motorrik eraginkorrena. Biztanleriaren sektore handi batek zerbait falta duela sentitzen du eta hori berreskuratzera jotzen du indar eta ilusio handiz. Fenomeno horiek, hizkuntzaren zapalkuntza-politika laxatzen den une historikoan manifestatzen dira bizien eta, Hegoaldearen kasuan, trantsizioaren lehen urteak izan ziren horiek. Gaur egun ezagutzen dugun proiektu asko orduan sortuak dira, orduan murgildu ziren hizkuntzaren ikas/irakaskuntzan milaka pertsona eta, dudarik gabe, horien guztien bultzadari esker gaude oraingo lekuan. Identitatearekin erlazionaturik motibazioak izan ziren nagusi, ez ziren artifizialki sustatu behar izan. Hala ere, horien indarra galtzen ari da eta poliki-poliki beste motibazio batzuk nagusitu zaizkigu, askoz ere oinarri pragmatikoa dutenak, ez dute euskara halaberrez maite, euskara behar dute. Motibazio horiek maiz indutituak dira, hizkuntza-politikaren ondorioz edo herritarren etorkizuneko pertzepzioaren ondorioz. Jakina da, herritarrek hartzen dituzten erabakiak dituzten pertzepzioen arabera direla eta ondorioz, politika jakin batzuk eragin zuzena dute herritarren erabaketan. Ikus ditzagun bada koadro honetan euskara ikasteko edo euskaraz aritzeko izan daitezkeen motibazioak

IDENTITATEAREKIN ERLACIONATUTAKO MOTIBAZIOAK	MOTIBAZIO PRAGMATIKOAK
• Nire herriko hizkuntza delako • Gure kulturaren parte delako • Euskalduna naizelako • Familiak galdu zuelako • Lapurtu ziguten zerbait delako	• Seme-alabei laguntzeko • Lana aurkitzeko • Gizarteratzeko (etorkinen kasuan) • Ingurukoekin hitz egiteko • EGA lortzeko

Euskalduntze-Alfabetatzean ari diren ikasleei egindako azterketa batean lortutako erantzunak dira.



Gaur egun eta aurrerantzean zaila izango da herritar guztiek euskara ikasteko edo erabiltzeko behar duten motibazioa lehen zutabeko arrazoiaren artean aurkituko dituztela pentsatzea. Lehen zutabean kokatzen direnak zenbat eta herritar gehiago izan orduan eta su handiagoa izango du Normalizazio Prozesuak herritar horien konpromiso maila handiagoa izan ohi delako. Beraz, neurri handi batez, prozesuaren arrakastarako determinatzaileak dira, euskararen beharra barruan sentitzen dutenak baina, ziurrenik etorkizunean herritar kopururik handiena eskuineko zutabean kokatuko da. Hau da, euskararen beharrak sorburu exogenoa du pertsona horientzat eta neurri handi batez, hizkuntza-politikaren eraginez lortuko dute beharrezko motibazioa pausoa emateko. Une historiko honetan agortzen ari dira ezkerreko zutabean arazoak aurkitzen dituzten herritarrak jada ikasi dutelako, seme-alaben aldeko apustua egin dutelako edo saiatu direlako nahiz eta huts egin duten. Ondorioz, motibazio pragmatikoen garaian sartuta gaude. Euskara erakargarri bihurtuz, mota guztietako eta kalitate handiko eskaintzak ugalduz, identitatearekin zerikusirik duten mezuak zabalduz eta, oro har, euskara prestigiatzeko helburua duen bide oro jorratu beharrezkoa da baina, oso presente izan behar dugu motibazioen balantzan pragmatikoei izango dutela pisurik handiena eta, horiek, neurri handi batez, hizkuntza-politika eraginkor baten ondorioa dira. Beraz, ezagutzaren unibertsalizaziora iritsi behar dugu ahal bezain laster motibazio pragmatikoak nagusiki erabiliz. Horretarako, erabaki traktore estrategikoak hartu behar dira: hezkuntza-alorrean belaunaldi berriak oso osorik euskaldunduko direla bermatuz, lana eskuratzeko euskararen ezagutza beharrezko bihurtuz, euskara hutsezko eta kalitatezko aisialdiko es-

kaintza kulturala ugalduz, gainerako politiketan hizkuntza-irizpideak ezarri, erabilera kuotak ezarri alor pribatuan, administrazioek euskaraz lan egitea ahalbidetuko duten euskarazko zirkuituak sortuz eta epe zurrunk ezarri aurreko guztia burutzeko.

Borondatean eta laguntza etengabe oinarritutako hizkuntza-politikarekin batera, politika betearazlea jarri behar da abian, diru-baliabi-deak eragin maila handiagoa ekarriko diguten beste zeregin batzuetarako libratuz.

Motibazio hauek nagusiki euskara ikasteko unean funtzionatzen dute hoberen baina, erabilerarako jauzia oso konplexua da. Gogora ekarri beharko genuke Txillardegiaren eredu matematikoa, lan eredugarria dudarik gabe aipatzen ari garen arazoa bere dimentsio osoan ulertu ahal izateko. Hau da, ezagutza unibertsalerako pausoak ematen badi-tugu ere, erdal elebakarraren diktadura presente izango dugu beti, bere presentzia hutsak erregistroa aldatzera behartzen gaituelako eta, ondorioz, harremanak zenbat eta konplexuagoak orduan eta eragin handiagoa izango dute erdaldun elebakarrek. Beraz, horri buelta emateko, ezagutza eta erabileraren arteko harreman dialektiko euskararen alde bihurtzeko, euskaldungo kontzientziatu eta antolatua garrantzia ikaragarria da. Euskalgintzaren lana determinatzailea izango da erabileraren aldeko lehia irabazteko harreman sozialen alorrean jokatzen delako partida hori.

Erdaldun elebakarrari zirkulua itxi behar diogu eta era berean, euskaldunari erraztasunak eskaini haren euskalduntasuna garatzeko. Bi hizkuntza ezagutzen dituen bizi-penen baitan aukeratzen du bata edo bestea. Hona hemen hainbat arrazoi hizkuntzak hautatzeko:

ERREFORTZUA	ZIGORRA
• Helburuak errazago lortzea • Denbora galtzeke helburu horiek lortzea • Arreta lortzea • Onartua izatea • Anonimatuari eustea • Ulertuko zaituztela jakitea	• Endredoak sortzeko arriskua • Denbora luzatzea eta kostua handitzea • Azalpenak eman behar izatea • Konnotazio politikoak sortzea • Tratu txarraren arriskua sumatzea • Deserosotasuna sortzea
<i>Elementu horiek hautatu duzun hizkuntzarekin betetzen badira erabili egingo duzu, berretsi egingo duzu zeure hautua.</i>	<i>Elementu horiek hautatu duzun hizkuntzarekin betetzen badira erabiltzeari utziko diozu neke gaindiezina sortzen baitute.</i>

Hizkuntza-politikak arestiko faktoretan eragin dezake eta eragin behar du erabileraren aldeko borrokan euskararen alde jarri nahi badugu. Euskara erabiltzeko kanpainen eragin gutxi izango dute herritar-rrak euskara erabiltzeko hautua egiten duenean errebortxaturik atera beharrean zigortua sentitzen bada. Argi dago, beraz, hizkuntza-politika eraginkorrak eragotzi egin behar dituela euskaldunontzat zigor eta traba emozionalak diren horiek guztiak.

Ikusten denez, hizkuntza-politika eraginkor batek norbanako euskaldunak gizarte-espazioetan bertan babestu behar ditu zigorra sortzen duten jarrerak guztiz ezabatuz eta bere eskubideak bermatuko direla ziurtatuz. Orain arte, euskaldunak bi mezu oso desberdinen artean aurkitu dira. Alde batetik, behar bezain maiz ez erabiltzea leporatu zaigu eta kasu batzuetan euskararen egoera tamalgarria ustezko jarrera horietan kokatu ditu hainbatek. Gogoratu bestela, Joxean Artzeren esaldi famatua *“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik”* edo Baztarrikarena *“Onartu beharko genuke euskaldunon axolagabekeria dela euskararen etsairik handiena”*. Beste alde batetik, euskara erabili nahi izateak askotan, gehiegitan, emozionalki oso desatseginak diren egoerak sortzen ditu Hizkuntza Eskubideen Behatokiak urte urte frogatu duen bezala. Inondik inora ez dira justuak ez bata eta ez bestea; euskararen egoeraren erantzule nagusiak ez dira euskaldunak eta guztiz ezabatu beharko lirateke euskara erabili nahi duenak pairatzen dituen mota guztietako jarrera desagokiak. Hizkuntza-politika eraginkorrak horixe lortu behar du, alde batetik, eskubideen urratzailea deseroso sentiaraztea eta euskalduna babestea, bestetik.

Gizarte-prozesuak, Normalizazio Prozesuak, beraz, ikuspegi makro batetik aztertutik zeregin nagusi batzuk ditu, honako hauek hain zuzen ere: ezagutzaren unibertsalizazioa, euskara hutsean bizitzea ahalbidetzen duten espazioen euskalduntzea, edo, bestela esanda, euskara hutsean bizitzea ahalbidetuko duen egoera soziolinguistikoa sortzea, herritarren integrazio orokorra euskaraz bizi den herritarren multzoan. Lan makro hauek ez dira bata bestearen segidan landu behar, batera jorratzen diren bideak dira eta zeregina erabat ase baino lehenago beste maila egokian betea behar dugu.

2.2. EZAGUTZAREN UNIBERTSALIZAZIOAZ

Motibazioa prozesu pertsonala ez ezik politikosoziala era bada arestian ikusi dugun bezala. Ezagutzara helduei dagokienean motibazioaren bitartez iristen gara Txepetxek argi aski azaldu zuen bezala, baina, ez da kasu guztietan berdina gertatzen. Belaunaldi berrien kasuan, ordea, ez da motibazioa, ez behintzat ikasleena, euskaraz ikastera bultzatu dituen. Hezkuntza-sistemak, gaur egun ez bezala, oso osorik euskaldundu ditzake belaunaldi berriak, beraz, ezagutzaren unibertsalizazioa gizartearen sektore handi bati dagokionean, behintzat ez dago motibazioaren diktaduraren menpe. Hezkuntza-sistemak dagokion papera bete behar du eta hori ezin da baldintzatu ustezko eskubideak aipatuz, euskara ikasteko eskubidea ez ikasteko aukeraren gainetik kokatu behar da kasu guztietan eta arau zehatzez.

Helduen kasuan, ordea, arestian esan dugun bezalaxe, euskararen mundura erakartzeko motibazio pragmatikoei duten indarra bereziki baliatu beharko genuke. Horretarako, hizkuntza-politika eraginkorra abiatu behar da neurri handi batez motibazio indutitak direlako motibazio pragmatikoak, beraz, motibazio pragmatikoei eragiten dieten erabaki politikoetan dago gako orain erakartzerik ez dugun heldu askok pausoa eman dezaten. Hizkuntza-politikatik zenbat eta zurrunago jokatu orduan eta indar handiagoa egin ahaliko dugu. Beraz, lehenengo eta behin, ongi aztertu behar ditugu zein diren herritarren portaera aldatzera eramango duten erabakiak eta ondoren, politikaren bitartez eragin behar dugu ahalik eta sektore zabalenetara iristeko. Trakzio-lana egin dezaketen erabakien artean bi bereziki indartsuak dira: alde batetik, Administrazioa euskalduntzeko, eta ondorioz euskaraz lanean hasteko, epe muga zehatza jartzea salbuespenik gabe tar-te horretan inplikaturik egongo diren langile guztiak euskalduntzeko bideak jarri eta elebakarren kontratazioei utzi eta bestetik, enpresa zerbitzu emaile guztiei zerbitzua euskaraz emateko epe muga bat jarri. Bi erabaki horiek euskaltegiak beteko dituzte asko baitira erabakiok inplikatzin dituzten herritar-rrak. Ikerketa baten arabera, esate baterako, gazteen % 60k du bizi asmoen artean Administrazioen batean lan egitea. Euskara beharrezkotzat jotzen bada zuzenean inplikatzin dugu euskararen aldeko dinamikan herritarren parte handi bat. Gainera, bidea egiten zaio belaunaldi berri euskaldunari haren euskalduntasuna lan alorrean ere garatzeko. Normalizazioaren klabea da ezagutzara erakartzin dugin herritar bakoitza hitzun aktibo bilakatzea euskaraz arituko diren zirkuituetan integratuz. Bi elementu horiek estu koordinatetik pasatzen da Normalizazio Prozesuaren arrakasta.


2.3. ESPAZIOEN EUSKALDUNTZEAZ

Etekin gutxi aterako diogu pertsona euskalduntzearen alde egiten denari baldin eta ez bazaio aukera errealik eskaintzen euskaraz bizitzeko. Dagoeneko esan dugun bezala, ezagutza unibertsalaren aldeko lanak paraleloki gizarte-espazioak euskalduntzearen aldekoa izan behar du. Espazioak euskalduntzea hiztun berririk sortu gabe alferrikakoa den bezala, euskalduntzen ditugun herritarrek galdu egingo ditugu espazioak euskaldundu ezean. Zilegi bekigu orduan, herritarren euskalduntzeaz eta gizartearen euskalduntzeaz hitz egitea. Pertsonen euskalduntzarekin gertatzen den bezala motibazioetan era indutituan eraginez, gizartearen euskalduntzean ere hizkuntza-politika da eragiteko dugun biderik hoberena. Laguntza eta araua era orekatuan erabiliz espazioak euskaldundu daitezke eta behar dira bietarako ditugun epe-aurreikuspenak koordinatuz.



2.4. GIZARTE-ZIRKUITUAK

Euskaraz funtzionatzen duen gizarte erakargarria sortu beharra dago zirkuitu baten gisa funtzionatuko duena eta gero eta herritar gehiago hartuko duena bere baitan. Kalitatezkoa, anitza, erakargarria, zabala, osoa behar du euskaraz biziko den gizarte-zirkuitu hori, hortik kanpo daudenentzat desiragarria dena. Hizkuntza-politikak beraz, horixe du eginkizun, euskal gizarte-zirkuituaren sorkuntza, hain zuzen ere. Administrazio orokorra eta toki-administrazioa epe jakin eta labur batean sartuko da, alor sozioekonomikoak era bere epeak izango ditu, sektoreka integratuko da, aisia, kirola etab den dena, epe jakin batean euskal zirkuituan sartuko da, horrekin batera normalizazioa burutuz.




Arestiko horiek dira bloke nagusiak, egin behar estrukturalak eta estrategikoak baina, Normalizazio Prozesua, prozesua den neurrian honako pauso hauek eman beharko ditu hiru parametro kontuan hartuz:

- Ezagutza-tasa.
- Erabiltzeko aukerak.
- Espero litekeen gehienezko erabilera.

Hiru elementu horiek horrela antolatu beharko genituzke prozesua egoki mailakatzeko. Hona eskema:

Euskararen gutxitze eta Normalizazio Prozesuaren diagrama.



DIAGRAMAREN AZALPENA

Diagrama erraz horretan sintetizatu nahi izan ditugu espazioak eta hizkuntzen arteko harremanak eta espazio berean bizi diren hizkuntzen arteko harremanen ondorioz sortzen diren edo sor daitezkeen prozesuak. Diagramak ez dio erantzuten bakarrik euskararen egoerari eta bilakaera historikoari, bere horretan baliagarria da egoera berean dagoen edozein hizkuntzarentzat.

- Diagramaren hasiera A handi bat espazio berdean duen koadrotik hasten da. Jatorrizko egoera deitu dugu. Berarekin adierazi nahi izan dugu hizkuntza-komunitatearen espazio geografikoan gizarte-harremantarako erabiltzen den hizkuntza bat bakarria dela. Herritarrek bat baino gehiago jakin dezakete baina ezagutza horrek ez die eragiten gizarte-harremanei A hizkuntzaren erabilera eragozten ez duenez gero.
- Bigarren koadroan hizkuntza-komunitatearen espazioa beste hizkuntza-komunitate batek okupatzen du. Okupazio horrek ezaugarri politiko bereziak ditu, hau da, B hizkuntza darabilenak duen botereari esker ez da moldatzen jatorrizko egoerara A hizkuntza ikasiz eta ezarri egiten du berea prozesu bati hasiera emanez, non A bakarrik

dakiten herritarrek B ere ikasten duten eta B elebakarren presentziak ezarri egiten duen gizartean garrantzi handiko harreman politiko, ekonomiko eta sozialetan B hizkuntzaren erabilera. Hasiera honetan, A gehiengo izango da baina B hizkuntzaren hedapena hasiko da.

- Aipatu dugun prozesuaren eraginez A hizkuntza bakarrik ezagutzen dutenak desagertu egin dira eta A eta B ezagutzen dutenen multzoa handitu da B bakarrik ezagutzen dutenek egiten duten bezala. Bote-re harremanei esker, B hizkuntza gero eta beharrezkoagoa da, ikasi eta erabili ahaliko den bakarra izango da eta A hizkuntzaren ezagutza berezko transmisioaren eraginez bakarrik lortuko da. Esan gabe doa, bide honetatik segituz gero A hizkuntzaren etorkizuna guztiz baldintzaturik agertzen zaigula.
- Arestian esandakoaren haritik gero eta gutxiago dira bi hizkuntzak ezagutzen dituztenak eta B hizkuntzan elebakarrak direnak gero eta gehiago dira. Dudarik gabe egoera honetan aurkitzen da Euskal Hizkuntza Komunitatea gaur egun. Beraz, normalizazio-prozesu batek bakarrik eman diezaiokie A hizkuntzari dagokion espazioa berreskuratzeko aukera, hori egin ezean bere etorkizun bakarra desagertzea delako.
- Normalizazio-prozesu eraginkor horren eraginez lortu behar den lehen helmugak ezaugarri zehatzak ditu: alde batetik, baliabide eraginkorrak behar dira A hizkuntzaren ezagutza unibertsalizatzeko A eta B hizkuntzak ezagutzen dituztenen multzoa handitzeko, bestalde, hizkuntzaren erabilerarako gizarte-espazioak landu behar dira erabiltzeko aukera errealak sortzeko eta azkenik, botereak eskaintzen dituen aukerak erabili egin behar dira A hizkuntzari dagokion lekua berreskura dezan.
- Gauzak horrela eginez, gero eta handiagoa izango da bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen multzoa, eta gero eta txikiagoa B hizkuntza bakarrik ezagutzen dutenen eraginez komunikazio-harremanak baldintzatzeko izango duten ahalmena.
- Aurrera eginez gero, A hizkuntza izango da gizarte-harremanetarako hizkuntza nagusia. Azpimarratu behar da hizkuntza-komunitatearen espazio geografikoan A hizkuntza gizarte-harremanetarako tresna nagusia izateak ez duela baztertzen herritar eleanitzak izatea. Are gehiago, gaur eguneko gizarteak herritar eleanitzak eskatzen ditu baina, eleaniztasun horrek ez dio eragiten gizarte-harremanetan erabiltzen den hizkuntza nagusiar.

2.5. AURRERA EGITEKO ESKEMA EZAGUTZAREN GARAPENEAN OINARRITUZ

2.5.1. Eman beharreko urratsen proiektzio teorikoaren azalpena

Sarrera

Hizkuntza-politika, politika planifikatua da. Horrek esan nahi du helburuak eta epeak erlazioan jarri behar direla etengabe. Politika planifikatuak, beraz, oso dinamikoak dira eta errealitatea eraldatzen den neurrian beste neurri batzuk jar daitezke abian epeei eta helburuei eraginez.

Edozein kasutan, hizkuntza gutxitua biziberritzeko helburua duen politikak espazioak eta norbanakoak hartu behar ditu kontuan. ezagutzan ematen dugun aurrerapauso bakoitza irabazitakoa izan dadin. Horretarako ezinbestekoa da erabiltzeko aukerak ezagutzaren aurretik joatea kasu guztietan. Herritarrek euskara ikasi baina, erabiltzeko aukerarik ez badute alferrikakoa izango da irabazia.

Eskema honetan, eman beharreko pauso bakoitza zehazten da, ezagutza-tasa erabiltzeko aukerarekin erlazioan jarritz. Gaur egungo egoeratik abiatuz eman beharko genituzkeen pausoak zehaztea da helburua horietako bakoitzean indarra non jarri beharko genukeen zehatzuz. Kopuru horiei esker zehatz defini ditzakegu kuota politikak, esate baterako.

Bestalde, hemen aipatzen direnak bataz besteko kopuruak direnez, egokitzapenak egin beharko dira lekuan lekuko egoeraren arabera. Egokitzapen horiek egiteko honako irizpide hau erabiliko dugu kasu guztietan: Bataz bestekotik behera dauden udalerrietan bataz bestekoa aplikatuko da eta gaineratik daudenen kasuan haien zenbakiak sortzen dutena. Beraz, urrats bakoitzeko bataz bestekoak gutxieneko maila zehatzuko du.

A. Gaur egungo egoeratik abiatuz lortu beharreko lehen helburua

EZAGUTZAREN EGOERA	ERABILTZEKO AUKERAK	
	Alor publikoan	Alor pribatuan
AB (% 30) B (% 70)	AB (% 100)	AB (%50) B (% 50)
	Gehienezko erabilera tasa (% 14,2)	

Ezagutzari dagokionez gertu gaude aipatzen diren parametroak lortetik, izan ere, 2001.eko erroldaren arabera Euskal Herrian % 27,6ko ezagutza-tasa (Tasa horri %19,5eko igoera aplikatu beharko genioke baldin eta ia euskaldunak hor kokatzen baditugu). Beraz, berriro diogu, urrats honetan ezagutzari dagokion kopurutik gertu gaude.

Alor publikoari dagokionez, ordea, urrun gaude Administrazio desberdinek eskaintzen dituzten zerbitzuak ez direlako % 100ean bermatzen. Garrantzi handikoa da urrats honetan helburu hau kokatzea, alor pribatuan eragiteko guztiz funtsezkoa delako gutxienez zerbitzua euskalduntzea lortu duen Administrazio baten eredia izatea. Nekez eska dakiok enpresa handi bati zerbitzua euskaldundu behar duela, Administrazioa bera helburu hori lortzeko gauza izan ez bada. Azpimarratu behar da kopuru hauek definitzen dutena ez dela ezagutza baizik eta erabiltzeko aukerak. Horrek ondorio zuzena izango luke herritarrentzat Administrazioan hizkuntza-eskubideak errespetatuko lirateke eta baita jardun sozialeko aukeren % 50ean ere. Euskaraz lan egin ahal izateko zirkuitu sendoak ezarriko dira eta aldi honen bukaeran euskaraz lan egiteko helburua erabat lorturik egongo ez bada ere, oinarriak jarrita egongo dira.

Alor pribatuan, % 50eko kopuruarekin esan nahi da gizartean eskaintzen diren mota guztietako zerbitzuen erdia euskaraz eskaini behar dela. Gauza jakina da, alor pribatuan lehentasunak ezarri behar direla eraginkortasuna handitu nahi badugu. Beraz, merkataritza, komunikazioa, aisia eta kirola izango dira urrats honetan hizkuntza-politikaren eragina izango dutenak bereziki geroko utziz zerbitzu izaera ez duten beste jardun sozioekonomiko batzuk.

Esan gabe doa, aldi honetan garrantzi handikoa dela ezagutza unibertsalerako pausoak ematea, pauso sendoak. Belaunaldi berriak osorik euskalduntzeko bide ziurrak ezarri behar dira, euskalduntze-alfabetatzea indartzeari begirako neurri estrategikoak hartu behar dira, denean garrantzitsuena Administrazioako langilea izateko euskararen ezagutza derrigorrezkoa izatea. Bestalde, eta aurrerantzean eman beharko

ditugun urratsei so eginez, bai unibertsitatean, bai Lanbide Heziketan euskara hutsezko bideak ezartzen hasiko gara euskaldunak izango baitira geroago prozesuaren eraginez hala alor publikoan nola pribatuan eskatuko diren profesionalak.



B. Bigarren helburua

EZAGUTZAREN EGOERA	ERABILTZEKO AUKERAK	
	Alor publikoan	Alor pribatuan
AB (% 50) B (% 50)	AB (% 100)	AB (%75) B (% 25)
	Gehienezko erabilera tasa (% 18)	

Herritarren artean ezagutza erdira iritsi da jada. Horrek esan nahi du, belaunaldi berriek osorik ezagutzen dutela euskara eta helduen artean ere zabaltzeko gai izan garela. Unibertsalizaziorantz urratsak ematen segitu behar da.

Alor publikoari dagokionez, aurreko aldian lortu zen eskaintzen diren zerbitzuak oso osorik euskaraz eskaintzea eta orain lehenago hasitako prozesuari bukaera emango zaio euskara izango baita lan hizkuntza. Aldi honen bukaeran, beraz, Euskal Herriko Administrazioek, Orokorrek eta Tokikoek euskaraz lan egingo dute eta euskarazko zerbitzua eskainiko dute.

Alor pribatuari dagokionez, zerbitzua hedatzen segituko dugu eta aldiaren bukaeran % 75era iritsiko da herritarrek euskaraz jaso ahalko duten zerbitzu kopurua. Enpresa batzuk, zerbitzua eskaintzen duten horien % 25ak, hain zuzen ere, euskaraz lan egingo du eta enpresa horien eta gizarte-eragileen arteko harremanak euskaraz burutuko dira.

C. Hirugarren helburua

EZAGUTZAREN EGOERA	ERABILTZEKO AUKERAK	
	Alor publikoan	Alor pribatuan
AB (% 75) B (% 25)	AB (% 100)	AB (%100)
	Gehienezko erabilera tasa (% 48)	

Ezagutzaren kopuruak % 75era iritsi dira, 4 herritarretatik 3k euskaraz hitz egiten badaki. Azken bultzada falta da ezagutza unibertsalera iristeko.

Alor publikoan euskaraz lan egiten dute Administrazioek eta euskaraz eskaintzen du zerbitzua alor pribatuak. Azken honetan, enpresen erdiak euskaraz lan egiten du eta haien arteko harremanak ere gero eta maizago euskaraz burutzen dira..

D. Laugarren helburua.

EZAGUTZAREN EGOERA	ERABILTZEKO AUKERAK	
	Alor publikoan	Alor pribatuan
A (% 5) AB (% 90) B (% 5)	AB (% 100)	AB (%50)
	Gehienezko erabilera tasa (% 76)	

Euskararen ezagutza ia unibertsala da, bakar batzuk dira euskara ezagutzen ez dutenak. Lehendabiziko aldiz gertatzen da gaztelaniaren eta frantsesaren beharrik ez dagoela talde komunikazioan eta ondorioz, euskarak betek du orain arte gaztelaniak edo frantsesak betetzen zuten hizkuntza frankoaren zeregina. Une hau bereziki garrantzitsua da iraulketa-unea delako. Elebidun funtzionalek haien izaera ezkuta dezakete elebakarren papera edo funtzio praktikoa eginez. Euskararentzako unerik kritikoena da, gizarte-komunikazioaren unean izaera frankoa betetzen hasten bada etorkizuna irabazteko aukera errealak izango dituelako.



Herritar eleaniztunak lortzera goazen honetan euskal elebakarra terminoak ez du adierazten hizkuntza bakarraren ezagutza, adierazten duena da euskara ezagutzen duela baina, hautuzko beste hizkuntza edo hizkuntzak ez direla ez gaztelania ezta frantsesa ere. Automatikoki euskara da hizkuntza franko bihurtzen dena eta horrek erabat iraultzen du egoera euskararen alde, dagoeneko esan dugun bezala.

Alor publikoa euskaraz ari da.

Alor pribatuan egon badaude oraindik ere, euskaraz lan egiten ez duten enpresak baina, haien zerbitzuak kasu guztietan euskaraz bermatzen dira.

3. CORPUS JURIDIKOA

Kapitulu honetan nagusiki hiru gai jorratuko ditugu. Lehenengo eta behin euskarak izan behar duen estatusari buruz hitz egingo dugu. Segidan, arkitektura juridikoa izango dugu mintzagai, hau da, zer lege-egitura behar dugun euskararen normalizazioaren gaia arautua egon dadin gizarteko jardun orotan eta azkenik, euskararen lege nagusiak zer ezaugarri izan behar duen zehaztuko dugu.

3.1. EUSKARAREN ESTATUSA

Euskarak berezko duen espazio fisikoa, Euskal Herria, funtzionalki erabat garaturik dauden bi hizkuntzekin konpartitu behar du era desorekatuan ez baita posible euskal hiztunarentzat gizarteko funtzio guztiak euskaraz burutzea. Egoera honi diglosia deitzen zaio, espazio bera bi hizkuntzek betetzen dute baina, horietako baten espazio funtzionala ez da osoa. Garrantzitsua da esatea ez dela inongo kasutan euskararen berezko komunikazio gaitasuna gutxitze horren arrazoiak. Euskararen normalizazioak, beraz, hizkuntza gutxituari, euskarari dagokion funtzionalitatea itzuli behar dio eta zeregin horretan garrantzi handia du arkitektura juridikoa.

Lehenengo pausoa euskarari estatus egokia ezartzea da. Egokitasuna erlasionaturik dago balantza euskararen alde jartzeko gaitasunarekin, alegia, euskarari ezartzen zaion estatusak euskararen alde hautsi behar du oreka Normalizazio Prozesuan zehar hartu beharko diren neurriek oinarri legala izan dezaten. Oreka hori hausteko gakoa lehentasunezko izendatzean datza. Euskara izango da, beraz, Euskal Herrian, euskararen berezko lurraldean, lehentasunezko hizkuntza. Ondorioz, neurrien batek zalantza sortuz gero euskara lehentasunezkoa den neurrian balantza horren alde egingo du kasu guztietan. Modu horretaz bakarrik lortuko dugu orain galdurik edo ahuldurik dituen alor funtzionalak biziberritzea.

Bestalde, euskara ofiziala behar da, harreman administratiboetan dagokion lekua irabaz dezan eta neurri horiek denek aurkitzen dute justifikazioa euskara berezkoa delako. Horrek esan nahi du berezkoa delako dela ofiziala eta gutxitua delako lehentasunezkoa.

Azkenik, eta lehian dauden hizkuntzek gaur egun duten estatusa zein den kontuan hartuz ezagutu beharrekoa ere izan behar du estatuz. Hori horrela egin ezean, ezinezkoa izango da euskararen garapen funtzionala. Gaztelania ez dela ezagutzen ezin da legez argudiatu eta horrek ondorio praktikoa zuzenak ditu eguneroko bizitzan bai harreman ofizialen arloan nola alor pribatuan ere. Soilik euskara ezagutu beharrekoa dela

erabakiz orekatuko ditugu estatusak eta beharrezko babes legala eraiki ahalko dugu euskararen normalizazioaren aldeko arkitektura juridikoa. Gai hau proposatu dugun bakoitzean “inposizio” hitza erabili izan da. Horren harira gauza pare bat esan behar dugu: alde batetik, ez dela onargarria euskararen ezagutu beharra inposiziotzat jotzea gaztelania edo frantsesaren ezagutu beharra aldarrikatzen dutenen aldetik eta bestaldetik, esan beharra dago estatusa definitzeko moduaz ari garen neurrian bere eraginik garrantzitsuena epe laburrean ez duela herritarren artean baizik eta corpus juridikoaren sorkuntzan. Horrekin esan nahi dugu, euskararentzako estatus horrek modulatu egingo duela euskararen alde arautegi osoa eta zaildu egingo dituela hizkuntza nagusien aldeko jarrera elebakarrak eta definituko duela hizkuntza-politika arrerirritzi horren arabera diseinatu beharko delako.



Euskararen estatus egokia, beraz, lau kontzeptuk osatzen dute: euskara Euskal Herrian berezko hizkuntza da, ofiziala eta lehentasunezkoa eta bertan bizi diren herritar guztientzat ezagutu beharrekoa.

3.2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ALDEKO ARKITEKTURA JURIDIKOA

Lege-marko batek jaso behar ditu irizpide orokorrak gero sektoreko beste arau batzuen bitartez zehaztu direnak eta sektore bakoitzaren ezaugarrien arabera moldatuko direnak.

Arau guztiak zehatzak behar dira, irizpide horien argitze sektorialak egiteko erabili behar dira eta kasu guztietan herritar euskaldunaren hizkuntza-eskubideen bermea ahalbidetu behar dute interpretazioetarako tarte txikia utziz.

Arau dinamikoak behar ditugu, Normalizazio Prozesuak bere bidean izango dituen errealitate desberdinetara azkar egokitzeko. Normalizazio Prozesua bidea den neurrian. Legeak eta arauak ezinbestean modu dinamikoak ulertu behar dira prozesuaren zerbitzuan eta herritarren zerbitzuan dauden tresna juridikoak besterik ez direlako.

Arau eta legearen irizpideak iraunkorrak behar dira ordea. Gora behe-ara politikorik gabeko hizkuntza-politika egonkorra da egokiena eta hori ez dago izaera dinamikoarekin kontraesanean. Izan ere, irizpide iraunkorren egokitze dinamikoa da elementu juridiko hauek eskaini behar digutena.

Helburu eta epe zehatzak izango dituzte tresna juridiko hauek. Garrantzitsua da oso ezaugarri hau.

Kasu guztietan, behar ditugun mota guztietako baliabideak esleiturik daudela abiatuko dira arauak. Lege eta arauen garapena ez dute baliabide-gabeziak gelditu behar.

Egiturari dagokionez, dagoeneko esan dugun bezala irizpide orokorrak definituko dituen legeari sektorekako legeek segituko diote. Honako hauek izango dira:

A. Administrazio Publiko Orokorra euskalduntzeko legea

Bertan Administrazio Orokorra eta Toki Administrazioa euskalduntzeko epeak ezarriko dira bai eta epe bakoitzari dagozkion helburuak ere egoera soziolinguistiko desberdinen arabera. Langile guztiak euskalduntzeko epeak ezarriko dira, langile berriek euskara ezagutzeko betebeharra ezarriko da eta euskaraz lan egingo duen eta zerbitzua eskainiko duen euskarazko zirkuituaren antolakuntza nola egingo den zehaztuko da. Eskubideen urraketaren aurrean zer erantzukizun mota hartuko den kontuan zehaztuko da bai lan arloan bai eta politikoan ere. Administrazioek euskaraz lan egiteko eta zerbitzua eskaintzeko betebeharra noiz beteko duten zehaztuko da lege honetan.

Lege honen barruan udalerrri euskaldunak bereziki babesteko bideak ezarriko dira duten egoera soziolinguistikoari eusteko batetik eta gero eta udalerrri gehiago sar dadin multzo horretan.

B. Osasun-sistema euskalduntzeko legea

Osasun-sistema publikoa, **itunpekoa** eta **pribatua** euskalduntzeko epe zehatzak definituko ditu legeak. Sistemetako langileek izan behar duten euskara ezagutza definituko da legez eta gaitasun horretara bakoitzak duen epea zehaztuko da. Kontratazio berriei dagokienez, euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da eta Unibertsitatean bideak ezarriko dira beharrezko profesionalek gaitasun nahikoa izan dezaten. Euskaldundu bitartean euskaraz lan egingo duen eta zerbitzua eskainiko duen zirkuituaren antolakuntza nola egingo den zehaztuko du legeak. Eskubideen urraketaren aurrean zer erantzukizun mota hartuko den kontuan zehaztuko da. Herritarren hizkuntza-eskubideak ez urratzeko neurri zehatzak ezarriko dira legez.

C. Justizia zerbitzua euskalduntzeko legea

Justizia Administrazioa euskalduntzeko epe zehatzak definituko ditu legeak. Justizia Administrazioa langileek izan behar duten euskara ezagutza definituko da legez eta gaitasun horretara bakoitzak duen epea zehaztuko da. Kontratazio berriei dagokienez, euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da eta Unibertsitatean bideak ezarriko dira beharrezko profesionalek gaitasun nahikoa izan dezaten. Euskaldundu bitartean euskaraz lan egingo duen eta zerbitzua eskainiko duen zirkuituaren antolakuntza nola egingo den zehaztuko du legeak. Eskubideen urraketaren aurrean zer erantzukizun mota hartuko den kontuan zehaztuko da eta kasu guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak ez urratzeko neurri zehatzak ezarriko dira legez.

D. Hezkuntza euskalduntzeko eta Hezkuntzak euskalduntzeko legea

Hezkuntza-sistema **publikoa**, **pribatua** eta **itunpekoa** euskalduntzeko epeak ezarriko ditu legeak. Bide horretan eman beharreko pauso bakoitzaren helburuak ere zehatz-mehatz ageriko dira. Bestalde, belaunaldi berriak oso osorik euskalduntzeko hartu beharreko neurriak ere zehaztuko dira.

E. Lurralde antolamenduan hizkuntza-irizpideak ezartzeko legea

Euskarak normalizaziorako bidea bi lan ildo estrategiko handi jorratuz egin behar du, alde batetik, funtzionalki gero eta funtzio komunikatibo gehiago eskuratuz eta bestaldetik, geografikoki gero eta espazio zabalagoetara hedatuz euskaraz bizitzeko aukera. Beraz, euskararentzat irabazitako espazioak berresteko lurraldea hizkuntza-irizpidez ere antolatuko da eta lege honek horretarako irizpideak zehaztuko ditu.

F. Alor sozioekonomikoa euskalduntzeko legea

Produktuak saltzen eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak euskalduntzeko helburuak eta epeak zehaztuko ditu lege honek. Enpresek bete beharrekoak eta eskaini beharreko laguntzak zehaztuko dira baita hizkuntza-eskubideen urraketak zer ondorio ekarriko dion urratzaileari ere. Lege honetan kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak ere jasoko dira. Kasu guztietan enpresek eskubideok bermatzeko bide zehatzak jorratu beharko dituzte, legez ezarriak eta bete beharrekoak. Eskubideon artean etiketak eta publizitatea bereziki aztertuko dira.

G. Herrizaingoa euskalduntzeko legea

Herrizaingoa euskalduntzeko epe zehatzak definituko ditu legeak. Herri-zaintzan ari diren langileek izan behar duten euskara ezagutza definituko da legez eta gaitasun horretara bakoitzak duen epea zehaztuko da. Lege honek Toki-Administrazioa langileei ere eragingo die. Kontratazio berriei dagokienez, euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da eta bideak ezarriko dira beharrezko profesionalek gaitasun nahikoa izan dezaten. Euskaldundu bitartean euskaraz lan egingo duen eta zerbitzua eskainiko duen zirkuituaren antolakuntza nola egingo den zehaztuko du legeak. Eskubideen urraketaren aurrean zer erantzukizun mota hartuko den kontuan zehaztuko da eta kasu guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak ez urratzeko neurri zehatzak ezarriko dira legez.

H. Hedabideak euskalduntzeko legea

Euskal Herrian lan egiten duten hedabideak euskalduntzeko epe zehatzak eta helburuak zehaztuko ditu legeak. Horretarako nagusiki kuotaren bidea erabiliko da. Administrazioaren diru-laguntzak jasotzen dituzten hedabide guztiei eragingo die. Interneten kasuan izan ezik gainerako kasu guztiei eragingo die kuotaren ezarpenak. Bete beharreko kuota ez errespetatzekotan zer ondorio egongo den zehaztuko du legeak. Legeak kontuan hartuko ditu bai mota guztietako euskarriak, bai horien zabal-kunderako bideak ere, lan egiteko behar diren baimen administratiboak erabiliz ezar daitekeelako euskararen erabilera-kuota sistema.

I. Eskaintza kulturala euskalduntzeko legea

Eskaintza kulturean euskararen presentzia kuota bitartez bermatuko duen legea izango da. Bertan, antzerkigintza, zinemagintza, liburugintza, mota guztietako artegintza, bideo-jokogintza eta kulturaren adierazpena den oro jasoko du lege honek bere baitan. Epeak eta helburuak zehatzak izango dira.

J. Aisia eta kirola euskalduntzeko legea

Kirol eta aisialdiko eskaintzan euskararen presentzia kuota bitartez bermatuko duen legea izango da. Mota guztietako kirol-ikuskizunei eragingo die eta helburua da kirol-egitura konplexuaren euskalduntzea lortzea epe jakin batean. Berdin aisialdiari dagokionean. Epeak eta helburuak zehatzak izango dira.

K. Zerbitzu erlijiosoak euskalduntzeko legea

Eskaintza erlijiosoetan euskararen presentzia bermatzeko legea izango da. Bertan erlijio guztiak hartuko dira kontuan edozein izanik ere haren hedadura eta fededun kopurua. Euskalduntzeko epeak eta helburuak zehatzak izango dira.

L. Arduradun politikoak euskalduntzeko legea

Alderdi politikoek haien burua euskalduntzeko epe zehatza izango dute legez ezarria. Bitartean kuota-sistema baten bitartez funtzionatu-ko dute gero eta handiagoa izango dena helburura iritsi arte.

3.3. Euskararen legea

Euskararen legea osoa, zehatza eta dinamikoa izango da. Hizkuntza-eskubideen urraketaekin bukatzeko tresna eraginkorra izan behar du eta era berean euskararen normalizaziora iristeko baliabide aparta.

Osoa behar dugula diogunean euskararen normalizazioaren alor guztientzako erantzunak izan behar dituela esan nahi dugu. Kontuan hartzen badugu, hizkuntza baten normalizazioa prozesu politikosozial sakona dela, berehalaxe ohartuko gara gizarteari bere osotasunean eragin behar diola benetan egokia bada, beraz, alor juridikoan ere, garbi zehaztu behar da nola jokatu alor horietan guztietan hutsunerik utzi gabe.



Zehatza behar dugula diogunean, ordea, azpimarratu nahi dugu anbiguotasunak beti jokatzen duela hizkuntza gutxituaren kontra eta ondorioz, zehaztasun maila handi batek prozesuarentzako bermea da.

Azkenik, lege dinamikoa behar dugu. Normalizazio Prozesua, prozesua den neurrian egoera aldakorra izango dugu aurrerapausoak ematen ditugun neurrian. Legea, ez da tresna bat besterik, normalizazioan aurrera egiteko aukerak eskaintzen dizkigun tresna juridikoa, hain zu-

zen ere. Ondorioz, egoera eraldatzen dugun neurrian tresna juridikoa ere aldatu beharko dugu pauso berriak emateko.

Hona hemen euskararen normalizazioak une honetan dituen beharrak kontuan hartuz beharko genukeen lege testua:

A. Euskararen estatusa

1. *Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza. Hori dela eta, bai herri-administrazioetan bai Euskal Herriko herri-komunikabideetan euskara izango da lehenetsutako hizkuntza eta irakaskuntzan ere normalean euskara erabiliko da bai komunikaziorako bai ikasteko ere. Beste hainbeste gertatuko da Osasun-sisteman, Justizia Administrazioan, Herrizaingoa eta Administrazioaren menpeko beste edozein zerbitzutan ere. Euskara izango da Euskal Herrian kokatuta dauden mota eta maila guztietako administrazioen lan hizkuntza.*
2. *Euskara da Euskal Herriko hizkuntza ofiziala. Gaztelania edo frantseza ere izango dira beharrezkotzat joko den lurraldearen zatian. Pertsona orok du euskara erabiltzeko eskubidea, eta Euskal Herriko herritarrek, euskara jakiteko eskubidea eta eginbeharra. Euskal Herriko botere publikoen ardura da eskubide horiek erabili ahal izateko eta eginbehar hori betetzeko beharrezko neurriak hartzea. Edozein kasutan, ezin da hizkuntzaren araberako bereizkeriarik egon.*
3. *Euskal Herriko agintariei dagokie Europar Batasunean euskararen ofizialtasuna aitor dezaten eta kulturaren edo hizkuntzen arloko nazioarteko organismoetan eta nazioarteko tratatueta euskara ager dadin eta euskara erabil dezaten beharrezko gestioak egitea.*
4. *Euskal Herriko agintariei dagokie berezko hizkuntzaren arloko eskumen eksklusiboa kanpoko inolako esku hartzerik gabe; eskumen horren barruan izango da beti bere ofizialtasunaren irizpidea, erabilerak eta ondorio juridikoak zehaztea, eta euskararen hizkuntza-normalizaziora iristea ere.*

B. Hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubideak eta eginbeharrak

1. *Pertsona orok du eskubidea, hizkuntza dela-eta inork baztertu ez dezan. Euskaraz gauzatutako egintza juridiko-administratibo guztiek, hizkuntzaren aldetik, erabateko balioa eta eragina izango dute. Euskara bai alor publikoan nola pribatuan ere erabili nahi duen herritarri ezin izango zaio eskubide hori ukatu eta Euskal Herriko botere publikoen ardura da eskubide hori egikaritzeko beharrezko neurriak hartzea.*

C. Herri-administrazioetan diren hizkuntza-eskubideak

1. *Herritarrek euskara erabiltzeko eskubidea dute. Pertsona orok du, Euskal Herrian dauden instituzioekin, antolakundeekin eta herri-administrazioekin dituen harremanetan, euskara erabiltzeko eskubidea. Eskubide hori errespetatu beharra dute mota eta maila guztietako instituzio publikoekin, antolakundeekin eta administrazio-atalekin, edozein delarik ere eskaintzen duten zerbitzua. Administrazioarekiko harremanetarako beharrezkoa den dokumentazio ofiziala baita formularioak, inprimakiak, eta ereduak ere. paperean, euskarri informatikoan edo beste edozeinetan euskaraz gutxienez jasoko du herritarrek.*
2. *Pertsona orok, justizia-administrazioarekin, fiskaltzarekin, notarioekin eta erregistro publikoekin dituen harremanetan, euskara erabiltzeko eskubidea du epaitegietako, notariotzetako nahiz erregistroetako jardun orotan, eta Euskal Herrian sortzen diren agiri ofizial guztiak hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea ere bai, aukeratutako hizkuntzarengatik inolako babes-gabeziarik edo beharrik gabeko atzerapenik jasan gabe, edo ezereen itzulpenik aurkeztu beharrik gabe. Justizia Administrazioaren kasuan euskal herritarrek eskubidea izango du inolako itzultzaile bitartekaririk gabe beharrezko harremanak burutzeko.*
3. *Euskara erabiltzeko eskubide hori bermatuta egon dadin, epaileek eta magistratuak, fiskalek, notarioek, jabetza-erregistrozailerak eta salerosketa-erregistrozailerak, erregistro zibileko arduradunak eta justizia-administrazioa langileak, Euskal Herrian lan egin ahal izateko, euskara behar beste eta egoki ezagutzen dutela egiaztatu beharko dute, duten karguaren edo lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gai izateko bezainbatean.*
4. *Euskara erabiltzeko eskubide hori bermatuta egon dadin, Euskal Herrian dauden eta hizkuntza-neurrietan eragina duten mota eta maila guztietako administrazioak egiaztatu behar dute beren zerbitzura lan egiten duten langileak euskara behar beste eta egoki ezagutzen dutela, duten lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gai izateko heinean.*
5. *Euskal Herriko herritarrek hizkuntza-neurrietan eragina duten administrazioetako jurisdikzio-organismoekin dituzten harremanetan idatziz euskara erabiltzeko eskubidea izango dute, dagokion legedian zehazturiko prozeduraren arabera. Institutuzio horiek euskaraz aurkeztu diren idatzia onartu eta izapidetu behar dituzte, erabateko eraginkortasun juridikoa baitute kasu guztietan.*

6. *Euskal Herritar orok eskubidea du Euskal Herriko Osasun-Sistema Publikoan eta Pribatuak euskaraz artatua izateko inolako itzultzaile biartekaririk gabe. Beste hainbeste gertatuko da herri-zaintza zerbitzuekin edo Administrazioak eskaintzen duen edozeinekin.*
7. *Euskal Herriko Administrazioaren lan-hizkuntza euskara izango da. Administrazioa langileek euskara ez den eta ofiziala den beste edozein hizkuntza erabiliz artatua izan nahi badu herritarrak horretarako eskubidea izango du inolako bereizkeriarik gabe.*
8. *Administrazioa langileek, Administrazioaren alor guztietan euskara ezagutuko dute lanak egoki betetzeko moduan. Beste hizkuntza ofiziala ere ezagutuko dute horrela nahi duten herritarrek artatzeko beharrezko gaitasunean.*
9. *Euskal Herrian kokatuta dauden eta hizkuntza-neurrietan eragina duten mota eta maila guztietako administrazioek euskaraz lan egiteko betebeharra izango dute.*

D. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak

1. *Ondasunak, produktuak eta zerbitzuak erabiltzerakoan eta kontsumitzaileentzat, pertsona orok du eskubidea euskaraz kasu egin diezaioten, bai aboz bai idatziz. Euskal Herrian jendaurreko lana egiten duten erakunde, enpresa eta establezimenduek nahitaezkoa dute hizkuntza-aukera hori eskaintzeko eginbeharra, lege batek zehaztutako moduan. Etiketak, publizitatea, argibide-orriak, produktuen eta zerbitzuen funtzionamendurako beharrezko euskarri oro euskaraz gutxienez eskainiko dituzte enpresek. Lege batek zehaztutako dituen beharrek urratsak, epeak eta ez betetzeak sortuko dituen ondorioak urratzailearentzat.*
2. *Euskara balio juridiko osoz erabiliko da era guztietako merkataritza-jardunetan, hala nola ondasun, eta zerbitzuen salerosketetan, banku-eragiketetan, aseguruetan. lan-kontratuetan, eta gainerakoetan. Bestalde, behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txekak, kontratuek fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak euskaraz gutxienez egongo dira.*

E. Hezkuntza-arloko hizkuntza-eskubideak

1. *Pertsona orok du irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea, Lege honetan ezarritakoaren arabera. Hezkuntzan, bai unibertsitatean bai unibertsitate kanpora, bai Lanbide Heziketan, bai helduen hezkuntzan bai eta musika hezkuntzan edo beste edozeinetan, irakasteko eta komunikatzeko ohiko hizkuntzatzat erabili behar da euskara.*
2. *Unibertsitatez besteko mailetan, ikasleek irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea dute. Era berean, eskolan hasten direnean dakarten ohiko hizkuntza edozein dela ere, nahitaezko hezkuntza amaitzen dutenerako, euskaraz behar bezain ondo egiteko eskubidea eta eginbeharra dute. Bai euskaraz bai beste hizkuntza ofizialaren irakaskuntzak behar besteko lekua izan behar du ikasketa-planetan helburua lortzeko.*
3. *Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemara eskolan hasteko adina baino beranduago etorri diren ikasleek hizkuntza-indargarri bereziak hartzeko eskubidea dute, baldin eta ondo ulertzen ez dutela-eta nekeza gertatzen bazaie eskolan normaltasunez ibiltzea.*
4. *Hezkuntza Sistema osoan ikas eta lan-hizkuntza euskara izango da.*
5. *Nahitaezko heziketa amaitzen dutenerako ikasleek hirugarren hizkuntza bat ere behar bezain ondo jakin beharra dute. Botere publikoen ardura da hori sustatzea.*
6. *Botere publikoek euskarazko keinu-hizkuntzaren sorkuntza eta erabilerara bermatu behar dute, eta gorreria duten pertsonen, hizkuntza hori aukeratzeko gero, aukera berberak izateko behar diren baldintzak ere bai, hizkuntza hori irakatsi, babestu eta errespetatu egin behar baita. Zentzumen arazoak edo ezintasunak dituzten pertsona guztien hizkuntza-eskubideak errespetatuko dira.*
7. *Hezkuntza-Sistemaren bitartez euskara jakiteko aukera izan ez duten herritarrek eskubide hori jaso ahalko dute inolako kosturik eragin gabe eta horretarako erraztasunak jasoz bai lan alorrean bai eta familian ere sor litekeen eragozpenak gainditzeko bideak ezartzea. Botere publikoen ardura izango delarik.*



F. Hizkuntza-eskubideak hedabideetan

1. *Euskal Herriko herritarrek eskubidea dute Euskal Herrian hedatzen diren mota guztietako hedabideetan euskaraz informatuak izateko. Horretarako, lege batek zehaztutako dituen hedabide bakoitzak une bakoitzean bermatuko duen euskararen presentziaren ehunekoak, jorratu beharreko epeak eta neurriak ez betetzeak urratzaileari ekarriko dizkion ondorioak ere. Artikulu honetan zehaztutakoa mota guztietako euskarri komunikatiboei eta horien zabalkunderako bideei dagokie.*

G. Hizkuntza-eskubideak kirola, kultura eta aisialdian

1. Euskarak toki nagusia hartuko du kultur eta kirol-gertakarietan eta zerbitzuetan, hala nola liburutegietan, bideoteketan, zinemetan, antzokietan, erakustokietan, artxiboetan, informatika-ekoizpenean, folklorean, kulturaren industrian, eta kultur eta kirol- bizitzatik eratorritako beste gertakari guztietan ere.
2. Euskal Herritarrek maila guztietako eta kirol guztietako kirol-eskaintzak euskaraz burutuko dituzte. Botere publikoek bermatuko dute kirol-sare guztietan kirolak euskaraz praktikatzeko aukerak daudela.

H. Hizkuntza-eskubideak alor sozioekonomikoan

1. Euskal Herritarrek euskara erabili ahalko dute Euskal Herrian burutzen diren jardueren jardueren sozioekonomiko guztietan. Bestalde, jardueren laboralak eta lanbideak euskaraz egingo dira, lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntzen erabilera eskatzen duten kasuak salbuetsiz,

halakoak dira, esate baterako, hizkuntza- irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak etab.

2. Euskal Herriko langileek beren lanbide-jardueren egikaritzeko baliabide guztiak euskaraz izango dituzte eskura, hala nola, kontsultarako dokumentuak eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta ekipamendu informatikoak tresnak eta produktuak.
3. Euskara erabiliko da edozein motatako erakunde sozioekonomikoetan, hala nola, mota guztietako lan erakundeetan, sindikatuetan, enpresa buruen erakundeetan, lanbidekoetan eta gremioetan. Ofiziala den beste edozein hizkuntza erabiltzeko eskubidea izango dute herritarrek eta horretarako beharrezko baliabide teknikoak ezarriko dira eskatzen den aldioro.
4. Herritarrek euskara erabiliko dute enpresekin, merkataritza-establi-menduekin eta erakunde pribatuekin dauzkan harremanetan, eta hizkuntza berean atenditzeko eta erantzuna emateko betebeharrak izango dute aipaturikoen. Bestalde, ofiziala den beste edozein hizkuntza erabili nahi izanez gero ere aukeratutako horretan izango da artatua herritarra.

I. Euskararen kale-presentziaz

1. Euskarak presentzia nagusia izango du publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinaleztapenetan eta lurraldearen irudi orokorrean.
3. Pertsonen segurtasunari dagozkion argibide publiko guztiak euskaraz eta ofiziala den beste edozein hizkuntzaz, gutxienez, adieraziko dira, biak baldintza berdinetan.

J. Hizkuntza-eskubideak eta segurtasuna

1. Herritarren segurtasunaren ardura duten zerbitzu publiko eta pribatu guztien lan hizkuntza euskara izango da eta herritarra euskaraz kasu eta une guztietan euskaraz artatuko dela bermatuko dute botere publikoek. Bestalde, ofiziala den beste edozein hizkuntza erabili beharko edo nahiko balu herritarrek zerbitzua hautatutako hizkuntza eskaintzeko bideak ezarriko dituzte botere publikoek.



4. BALIABIDE ADMINISTRATIBOAK

Bai alor pribatuan, bai alor publikoan plangintzek izan behar dituzten ezaugarriak zehaztu behar ditugu. Hizkuntza-politika edozein kasutan politika planifikatua da beraz, urrats kopurua eta haien ezaugarriak definitu behar ditugu.

Administrazioa nola, zer pauso emanez, zer epez euskalduntzen den proposatu behar dugu, orokorki geroago arituko baikara sektoreka. Alor pribatuan ere berdin, enpresa bat, gizarte-talde bat etab nola, zer epez eta zer egingez euskalduntzen diren definituko dugu aurrerago egingo dugun lanean.



5. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hizkuntza-politikaz ari garen honetan baliabide ekonomikoen inguruko zehaztapenetan sartu baino lehenago komenigarria da aztertzea politika egiteko zer bide dugun eta bakoitzak zer paper jokatu behar duen diseinu orokorrean. Esan liteke, hizkuntza-politika ez ezik beste edozein politika egiteko bi bide nagusi ditugula, alde batetik, diru-inbertsioa eta, bestaldetik, araua.

Esan gabe doa, diru-inbertsioak ezaugarri positiboak ditu eta erraza eta atsegina da politika sortu behar dutenentzat bide hau dirua jasotzen dutenen aldeotasuna eskuratzen dutelako eta kritikak dezente apaltzen dituelako modu batez edo bestez jende askok eskuratzen duelako politika horren eraginez baliabide bat edo beste. Hala ere, Administrazioen baliabideak mugatuak dira eta bide horren bitartez, ezinezkoa da hizkuntza baten normalizazioak dituen eskariei erantzutea prozesuak etenik gabe denboran luzatuz. Bestalde, eman beharreko pausoak gero eta zailagoak direnean orduan eta baliabide gehiago behar izaten da prozesua bera arriskuan jarritz. Orain arte ezagutu ditugun hizkuntza-politika guztien ezaugarri nagusia diru-baliabideak eta arauaren arteko desoreka da eta esan liteke, politika horien oinarri sendo bakarra baliabide ekonomikoen gainean dagoela eraikia.



Arauari dagokionez, maiz izaera inpositiboa eta betearazlea duelako ezaugarri negatiboak ezarri zaizkio. Horrelakoak proposatzen direnean “*inposizio*” hitza beti ageri da eta Gobernuak ihes egin ohi dute politika egiteko modu honetatik eta horren ondorioz aplikatzen diren hizkuntza-politiken eraginkortasuna beharko genukeena baino askoz ere txikiagoa da. Hau ez da Gobernu autonomikoen mailan bakarrik gertatzen, Toki Administrazioan ere politika berbera dugu indarrean gaur egun. Beraz, oreka behar dugu araua eta baliabide ekonomikoen artean. Ikus dezagun ideia hau adibide batekin:

Euskal Herrian salerosten diren produktu gehien gehienetan ez zaio euskarari lekurik egiten etiketetan. Edozein izanik ere produktua, edozein izanik ere saltokia produktuen % 95 gaztelania edo frantses hutsean etiketaturik egongo da. Bartzelonako deklarazioak garbi dio 50.2 artikuluan “*Hizkuntza-komunitate propioaren lurraldeen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntzan informazio osoa izateko idatzia zein ahozkoa, lurraldean finkatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuez, hala nola erabiltze-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak*”. Beraz, etiketak euskaraz jasotzea eskubidezkoa denez, hizkuntza-politikak hori bermatzea lortu behar du. Modu desberdin askotaz egin liteke hori. Hona hemen hiru aukera:

- Diru-laguntza deialdi bat prestatuko dugu horretarako 3 milioi € esleituz haien borondatez etiketa euskaratu nahi duten enpresei eskaintzeko ea horrela enpresak animatzen diren eta etiketak euskaratzen diren. Itzulpenak ordainduko dizkiegu eta etiketa aldatzearen kostuak gure gain hartuko ditugu. Etorkizunari begira enpresek ez dute inolako konpromisorik hartzen eta behin dirua eskuratu ondoren etorkizunean aterako dituzten etiketak euskarazkoak izango ote diren bermatzeko biderik ez dugu. *Hau da gaur egun hautatzen den bidea.*
- Kontsumitzaile euskaldunak babesteko lege bat sortuko dugu. Bertan zehatz-mehatz zehaztuko dugu Euskal Herrian beren produktuak saltzen dituzten enpresek kontsumitzaileari informazioa gutxienez euskaraz eskaini behar diotela esanez. Horretarako urte bateko moldatzen aldia izango dute jada stockean dituzten etiketak buka ditzaten eta kostu gehigarriarik ez eragiteko. Araua hausten badute zigortuak izango dira kontsumitzaile euskaldunon hizkuntza-eskubideak urratzeagatik eta produktua merkatutik erretiratua izango da. Administrazioek ez dute ezer ordaindu beharko eta zigoren bidez jaso ere jasoko dute.
- Hirugarren aukerak bietatik hartzen du zerbait Normalizazio Prozesuak duen azkartze beharra kontuan hartuz. Horrela, araua sortuko dugu bigarren aukeran bezala baina prozesua azkartzeko helburarekin Administrazioek itzulpen gastuak beren gain hartuko dituzte eta aurkezten den etiketa elebakar desegoki bakoitza egoki baten truke izango da aldatua. Horren bidez, urte beteko moldatze aldia laburtu ahalko dugu.

Hizkuntza-politika eraginkorrak osagai orekatuak behar ditu, arauak eta diru-baliabideak, erdi eta erdi. Diru-inbertsioak egin behar dira prozesuak azkartzeko, beharrezko zerbitzuak bermatzeko, eskaintza-aren kalitatea handitzeko, aditu profesionalak prestatzeko, sentsibiliza-

zio kanpainak egiteko, bestela iristerik izango ez genukeen alor estrategiko eta espezifikotara iristeko eta arauak behar dira eskubideak bermatzeko. Ezin da eskubide bat utzi hirugarren baten borondatearen baitan eta ezin da ordaindu eskubidezkoa dena bermatzeko. Beraz, alor bakoitzean azterketa zehatza behar da jakiteko zer arautu behar den eta diru-inbertsioak non eta zertarako egingo ditugun.



DIRU-INBERTSIOAK EGINEZ	ARAU BITARTEZ LOTU BEHARREKOAK
Hezkuntzaz Ikasteko aukera izan ez duten heldu guztiek euskalduntzea doan izango dute baita, kanpotik Euskal Herrira lanera etortzen diren guztiek ere.	Hezkuntzaz Hezkuntza-sistemak belau-naldi berriak oso osorik euskaldunduko ditu. Goi mailako mota guztietako ikasketak euskaraz eskainiko dira. Helduek euskara ikasten duten bitartean lehentasunezko ordutegiak izango dituzte haien lantokietan. Publikoki edo pribatuki eskaintzen diren ikastaroetan euskarazko eskaintza bertutuko da eta edozein kasutan aldi bereko itzulpen-sistema jarriko da.
Administrazioko langileen euskalduntzeaz Dagokien epea baino lehenago haien kabuz euskaldundu nahi dutenentzako laguntzak. Euskara espezifikoa eskuratzeko laguntzak. Lanpostu estrategikoetan epeak laburtzeko laguntzak	Administrazioko langileen euskalduntzeaz Kontratazio berri guztietan euskararen ezagutza lege ezarri Lanpostu guztiek derrigortasun data izan behar dute. Euskaraz lan egingo duen zirkuitua sortu
Alor sozioekonomikoaz Epeak azkartzeko planak diruz lagunduak izango dira Zerbitzu emaila guztiak euskalduntzeko planak diruz lagunduak izango dira. Euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea lortzen duenak onura fiskalak izango ditu hainbat urtez. Euskaradunen kontratazio eksklusiboa egiten duten enpresek onura fiskalak izango dituzte.	Alor sozioekonomikoaz Etiketak, publizitatea, kontratuak, paisaia, megafonia bitartezko mezuak eta oro har idatzizko mezu denak eta ahozko mezu orokorrak lege bermatuak izango dira. Ahozko zerbitzua eskaintzeko epe jakin bat ezarriko zaie enpresa guztiei. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak urratzen dituenari zigorrak ezarriko zaizkio. Euskalduntze-plana enpresa guztiek izan beharko dute Administrazioaren oniritzia duena eta kanpo aholkularitzak gidatua.

Hedabideez Tasa gairiditzen duten hedabideek ahaleginaren arabera laguntza jasoko dute. Euskara hutsezko hedabideek laguntza berezia jasoko dute.	Hedabideez Euskal Herrian hedatzen diren hedabide guztiek lege ezarria izango dute erabilera kuota bat. Kuota kalkulatzeko uneko ezagutza-tasari 10 puntu gehituko zaizkio. Hedabide orokorren kasuan tasa orokorra aplikatuko zaie eta toki-hedabideei dagokien tokikoa. Tasa 4 urtez behin berrituko da.
Teknologia berriei Berezko materialaren sorkuntza lagunduko da diruz. Enpresek haien eskaintzei betetzen ez dituzten merkatu alorrak betetzeko diru-inbertsioak egingo dira.	Teknologia berriei Hardware-ekoizleek beren produktuak Euskal Herrian saldu ahal izateko aparatuek euskaraz baliatzeko aukera eskaini behar dute; bestela erretiratu egingo dira. Programak, bideo-jokoak eta bestelako produktuak saltzen dituzten enpresek horiek euskaraz baliatzeko bidea jarri beharko dute; bestela erretiratu egingo dira.
Kultura-eskaintzaz Berezko ekoizpena euskaraz diruz lagundua izango da.	Kultura-eskaintzaz Kultura-eskaintza orok euskararen erabilpena bermatuko du. Zinema-aretoek eta antzokiek ezagutza-tasaren arabera kuota izango dute, 4 urtez behin berritua.
Kirolaz Kirol-entrenatzaileak euskalduntzeko diru-inbertsioak egingo dira. Beren lan jardun osoa euskalduntzea lortzen duten Klubei diru-laguntza bereziak eman go zaizkie.	Kirolaz Kirol-ekitaldi guztietan euskararen presentzia orekatua eta lehentasunezkoa bermatuko da lege. Megafonia, sarrerak, estadioen espazioa... Edozein kirol euskaraz praktikatzeko aukera bermatuko da lege kategoria guztietan. Klubei eskaintzen dituzten zerbitzuak euskaraz ere eskainiko dituztela lege bermatuko da.



6. GIZA BALIABIDEAK

Hizkuntza baten Normalizazio Prozesuak ezinbesteko ditu giza baliabideak. Aditu profesional esperientziadunak beti dira behar direnak baino gutxiago. Hori dela eta, garrantzi handikoa da profesionalak prestatu eta egitura egokietan kokatzea lan eraginkorra egin dezaten. Beraz, aditu hauen sorkuntza erraztuko duten egiturak sortu behar dira. Unibertsitateak paper garrantzitsua bete behar du alor horretan ikasketa bereziak sortuz, ikerketa sektorial eta orokorrak eginez eta jakintza-arlo guztietan, hau da beste karreretan, duten ikuspegi soziolinguistikoa txertatuz, hori dena, lanean ari diren egiturekin harremanetan. Horretaz gain, herritar guztientzat irekia egongo den Soziolinguistika Institutua sortu beharko litzateke. Bertan, etengabeko azterketaren bidez, soziolinguistika aplikatua landuko da kasu erreale-tara egokitua eta herritarren parte hartzean oinarrituz.

Normalizazio Prozesua egoki garatzeko alor desberdinetan lan egin behar da. Alor horietako bakoitzean adituak behar dira gauza izango direnak proposamenak eta planak sortzeko, horiek ebaluatzeko, indar sozial, politikoak eta instituzionalak proiektuen inguruan batzeko eta uneoro dagokien alorrean Normalizazio Prozesuaren martxa kontrolatzeko. Nagusiki, honako zutabe hauetan lan egin behar da arreta bereziz eta egitura sendoz:

HIZKUNTZA-POLITIKAREN SEGIMENDURAKO BULEGOA

Ikuspegi politikoa, instituzionala, soziala eta teknika bere mailarik gorenean bildu behar da hemen Hizkuntza-politika bere osoan aztertu, ebaluatu eta sortzeko. Hizkuntza-politikaren irizpide nagusiak zehazteaz aparte, epeak aztertuko dituzte, hartutako neurri desberdinek alorretan duten eragina ere aztertuko dute eta azkenik, alor juridikoan, sozialean, ekonomikoan eta politikoan hartu beharreko neurriak proposatu egingo dituzte. Alor guztietan eragina duten pertsonek osatuko dute talde hau gehi beste nazio batzuetan Normalizazio Prozesuak arrakastaz burutu dituzten adituek ere, azken hauek aholkulari gisa.

Administrazio Orokorraren euskalduntzea.

Administrazio guztiek izango dute euskalduntzeaz arduratuko den lantaldea. Lantalde horren zereginak planak eta epeak aztertzea eta inplementaraztea izango dira. Administrazio guztiek izango dute euskalduntze-data bat eta ondorioz, tarteko helmugak betetzeko beharrezko bitartekoak ahalbidetzea izango da lantaldearen zeregina. Administrazioaren euskalduntzea zirkuituen bitartez egingo den zer-bait izango da. Euskaraz dakiten funtzionario denek euskaraz lan egingo dute eta gainerakoek ikasi ahala zirkuitu horretan integratuko dira. Aditu talde batek zirkuitu aldatzea arazorik gabe gerta dadin lan egingo du langileei erraztasunak emanez. Prozesuaren bukaeran Administrazioek euskaraz lan egingo dute eta zerbitzua gaztelaniaz nahi dutenei aukera hori eskainiko zaie.

Toki Administrazioaren euskalduntzea

Udal guztietan sortuko da hizkuntza-politika lantaldea. Bertan, maila orokorrean bezala sektore eta alor guztietako adituek hartuko dute parte. Alde batetik, politika orokorreko irizpideak dagokion udalerrian nola inplementatu aztertuko dute eta bestetik, lekuan lekuko egoera soziolinguistikoaren arabera zer neurri, plan, ekintza edota inbertsio berezia egin behar ote den zehaztuko dute. Alor politikoa, soziala eta instituzionala egongo da ordezkaria eta bi izango dira zeregin nagusiak: Administrazioa bera euskalduntzea eta Udalerrria euskalduntzea. Udalek orain arteko euskara zerbitzuak indartuko dituzte. Udalak hartutako neurriak betetzen direla ziurtatuko duen lantaldea egongo da eta bestaldetik, udalerrri horri dagozkion irizpide orokorrak betetzen direla ziurtatuko duen lantaldea egongo da. Esan gabe doa, irizpide orokorren arabera Udal bakoitzak politika zehatz bat izango du ezarria eta horretaz gain borondatearen eta aukeren arabera politika hori moldatu ahalko dute helburuetara lehenago iristeko helburuarekin.

HIZKUNTZA-POLITIKA SEKTORIALA ESPazio SozialeN Euskalduntzea

Alor sozioe-konomikoa

Fundazio batek zuzenduko du alor sozioe-konomikoaren euskalduntzea. Bertan, inplikaturako guztiek hartuko dute parte: Sindikalgintzak, Administrazioak, Enpresariak Elkarteak eta Euskalgintzak. Alor sozioekonomikoa euskalduntzeko plan estrategikoa sortzea, horren segimendua egitea eta ebaluatzea izango dira zereginik garrantzitsuenak.

Aisia

Fundazio batek zuzenduko du Aisiaren euskalduntzea. Bertan, inplikaturako guztiek hartuko dute parte: Zerbitzu-emailek, Administrazioak eta Euskalgintzak. Aisiaren eskaintza euskalduntzeko plan estrategikoa sortzea, horren segimendua egitea eta ebaluatzea izango dira zereginik garrantzitsuenak.

Kirola

Fundazio batek zuzenduko du kirol alorraren euskalduntzea. Bertan, inplikaturako guztiek hartuko dute parte: Kirol-talderik garrantzitsuenek, Administrazioak eta Euskalgintzak. Kirol-eskaintza euskalduntzeko plan estrategikoa sortzea, horren segimendua egitea eta ebaluatzea izango dira zereginik garrantzitsuenak.

Kultura

Fundazio batek zuzenduko du kultura-eskaintza euskalduntzea. Bertan, inplikaturako guztiek hartuko dute parte: Sortzaileak, banatzaileak, kontsumitzaileak, Administrazioak eta Euskalgintzak. Kultura-eskaintza euskalduntzeko plan estrategikoa sortzea, horren segimendua egitea eta ebaluatzea izango dira zereginik garrantzitsuenak.

Hedabideak

Fundazio batek zuzenduko du hedabideen euskalduntzea. Bertan, inplikaturako guztiek hartuko dute parte: Komunikazio taldeak, Administrazioak eta Euskalgintzak. Hedabideak euskalduntzeko plan estrategikoa sortzea, horren segimendua egitea eta ebaluatzea izango dira zereginik garrantzitsuenak.

Teknologia berriak

Fundazio batek zuzenduko du teknologia berrien euskalduntzea. Bertan, inplikaturako guztiek hartuko dute parte: Ekoizleak, banatzaileak, erabiltzaileak, Administrazioak eta Euskalgintzak. Teknologia berriak euskalduntzeko plan estrategikoa sortzea, horren segimendua egitea eta ebaluatzea izango dira zereginik garrantzitsuenak.

7. EBALUAZIO-SISTEMAK

Hizkuntza-politikak ebaluazio-sistema zorrotza behar du, sistema independentea, mota guztietako baliabidez ongi hornitua. Politika planifikatua den neurrian eragin adierazleak estuki kontrolatu behar dira unean uneko politika errealitate sozialera egokitu ahal izateko. Garrantzi handikoa da epeak ongi kontrolatzea, sektoreak era orekatuan garatzea, adierazleen garapena ere orekatua dela ziurtatzea eta datu horietan oinarrituz, etorkizuneko proiektzioak egitea.

Beraz, Hizkuntza-politikaren arrakasta neurri handi batez ebaluazio-sistema independente eta zorrotzak ziurtatuko du. Alor ekonomikoan egiten den bezalaxe, urteroko auditoria-sistema bitartez, Hizkuntza-politika ere urtero auditatu behar da maila, alor eta sektore guztietan garapena egokia eta orekatua ote den jakiteko eta horren ondorioz, politikak egokitzeko. Alor publikoa eta pribatua, biak ebaluatu behar dira eta hala barne egoera nola kanpo eskaintza ere. Ebaluazioak arreta bereziz aztertuko du euskalduntze-plana nolakoa den, betetzea ari ote den, lege-hausturarik ote dagoen, hizkuntza-eskubideak urratzen ote diren eta txosten bat sortuko du zuzendu beharrekoak garbi zehaztuz.

ALOR PUBLIKOAN	ALOR PRIBATUAN
Administrazio Orokorra	Mota eta tamaina guztietako enpresak
Toki Administrazioa	Mota guztietako elkarteak
Mankomunitateak	
Partzuergoak	
Enpresa publikoak	
Erakunde eta baltzu publikoak	
Erakunde autonomoak	
Azpiktratatutako enpresak eta zerbitzuak	

